

**ERABAKIA, 2015eko EKAINAREN 2koa, UPV/EHUKO GERENTEARENA, LANPOSTU BAT EGINKIZUNEN ESLEITZEAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEKO DENA, UNIBERTSITATE HONEN III TALDEKO LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN ARTEAN.**

**L 324**

**Informatikako Teknikari Espezialista**

**INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA**

**EGITEZKO AURREKARIAK**

UPV/EHUKo Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko eranskinean aipatzen den lanpostuaren titularra liberatuta dago sindikatuko lanak egiteko, dagoenez, Gerentziak lanpostu hori zereginak-esleitzean aldi batez beteko dela iragartzen du, hori guztia Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Kontratuko Langileen III Hitzarmenaren 20 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, eta UPV/EHUKo Errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Erabakiak eman dizkion ahalmenez baliatuz (erabaki hori gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko da, eta 2013ko otsailaren 13ko EHAAn argitaratu zen).

**OINARRIAK:**

**Lehena:** Deialdiko lanpostua zereginak esleitzearen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratadunen plangintza batzordearen, 2013ko uztailaren 4ko Akordioan araututakoa izango da; hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratadunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioak. Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2013ko uztailaren 18ko bieleran berretzitakoa (2013ko abenduaren 23ko EHAAN).

Aipatutako Akordioa ikus daiteke UPV/EHU web orrialdean, Administrazio eta zerbitzuetako langileak; barne deialdiak; lan kontratupeko langileak; arau aplikagarriak eta eginkizunak esleipean atalaren barruan.

**Bigarrena:** Eskabideak aurkezteko epea deialdia EHUKo web orrian argitatzeko den hurrengo egunetik bost lanegunetan amaituko da, eta pertsonalerako gerenteordetzara zuzendu beharko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko erregistro orokorrean aurkeztuz edo, era berean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio-Prozedura bateratuari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (azaroaren 27ko Estatu Aldizkari Ofizialean) 38.4. artikuluan jasotako beste edozein bide erabiliz.

Euskal Herriko Unibertsitateko erregistroak zehazten dira Euskal Herriko Unibertsitateko 2012ko maiatzaren 16ko erabakian daude jasota (2012ko ekainaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eta Interneteko helbide honetan: [http://www.ehu.es/erregistroko\\_bulegoak.html](http://www.ehu.es/erregistroko_bulegoak.html) Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan kokatutako erregistroen irekiera-ordutegia, asteleheneetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara izango da, goizeko ordutegian eta 15:00etatik 16:30etara arratsaldeko ordutegian. Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Sainduko eta Eguberrietako txandetan, ordutegia 9:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da.

**Hirugarrena:** Eranskinean adieraziko diren baldintzak betetzen dituzten lan-kontratadun langileek eskatu ahal izango dute erabaki honen bidez lehiaketara

ateratzen den lanpostua aldi batez betetzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean lehiatzaileek baldintza eta betebeharrak guztiak beteta izan beharko dituzte.

**Laugarrena:** Balioztatu beharreko merezimenduak Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratadunen plangintza batzordearen, 2013ko uztailaren 4ko Akordioan araututakoak izango dira, hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratadunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioan, bertan ezarritako muga barruan.

Eskariak aurkezteko epearen amaierako egunean betetzen diren merezimenduak besterik ez dira aintzat hartuko.

**Bosgarrena:** Eskararekin batera, izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita lehiatzaileek beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta titulu akademikoak egiaztatu behar izango dituzte, 2013ko uztailaren 4ko akordioan 5.4 puntuan esandaka salbu.

Euskal Herriko Unibertsitateak ofizioz balioetsiko ditu antzintasunari eta Euskal Herriko Unibertsitateko lan eginkizunak zerbitzuei dagozkion merituenak.

**Seigarrena.-** Lehiaketara ateratako eginkizunen esleipenak ordezkatzeko ari den pertsona bere lanpostura itzuli arte iraungo du.

## ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra lan-auzibidera jo aurreko erreklamazioa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean hilabeteko epean. Hilabete igaro eta ebazpena jakinarazi ez badiote langileak ezetsitzat jo dezake erreklamazioa. Erreklamazioari ezezkoa emanaz gero, edo ebazpenik jakinarazi gabe hilabete igaroz gero, epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, aurretiazko erreklamazioa ukatu dela jakinarazten den egunetik edo administrazio-isiltasunez ukatutzat jotzen den egunetik kontatuta. Hori guztia, 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 125. artikuluan eta urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2015eko ekainaren 2an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia

(2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

GERENTEA,

Stua, Miren Lorea Bilbao Arteche



## ERANSKINA

Izena: Informatikako Teknikari Espezialista

Erref.: L 324

Lanaldia: Arautua

Zenbatgarrena: 23

Taldea: III

Kategoria profesionala: IKTko Teknikari Espezialista

Espezialitatea: Sistemen Informatika

Maila: 20

Hizkuntza eskakizuna: 2 derrigorrezko data: 31/12/02

Langunea: Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetza

Campus: BIZKAIA

Lanpostua betetzeko baldintzak:

- UPV/EHUko lan-kontratuko langilea izatea eta III taldekoa, eta Sistemen Informatika espezialitatekoa. Kategoria profesionala: IKTko teknikari espezialista
- 2. hizkuntza eskakizuna gaindituta izatea euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria mailekin parekatzeko den Dekretuak adierazten duen legez (Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua) edo, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko den Dekretuan esandakoari jarraituz. (Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua).